

A AUKERA

“Hala ere, gure garai honetan, hots, burgesiaren garai honetan –eta hauxe dateke horren izaera bereizgarria– klaseen arteko aurkakotasunak sinpletu egin dira. Gizarte osoa gero eta gehiago ari da alor etsai zabal bitan banatzen, zeharo etsai diren klase handi eta zeharo etsai bitan: burgesia eta proletalgoa”.

K. Marx – F. Engels: *Alderdi Komunistaren Manifestua*

GALDERAK

1. TESTUAREN ULERMENA

- 1.1. Formula ezazu testu honetan ukitzen den gaia eta egizu gaian garatzen diren ideia nagusien laburbilduma.
- 1.2. Azal ezazu hitz edo esaldi azpimarratuen esangura.

(3 punturaino balioetsiko da)

2. TESTUINGURATEKA

Erlaziona ezazu testu honen edukia autorearen pentsamenduarekin eta bere garaiarekin. Nahi baduzu, ondoko galderen inguruan egin dezakezu:

- 2.1. Gizonaren autoekoizpena lanaren bidez.
- 2.2. Historiaren filosofia marxista eta gizartearen eraketa

(4 punturaino balioetsiko da)

3. IRUZKIN KRITIKOA

Presta ezazu idazketa labur bat testuaz zeure iritzien arrazoiak emanez. Idazketa, nahi baduzu, ondoko galdera batzuen edo guztien inguruan egin dezakezu:

- Gaurko gizartean zer da nagusi, gatazka ala lankidetzatza? Ipin itzazu adibide batzuk
- Zenbat gizarte-klase dago gaur egun?. Zehatz itzazu.

(3 punturaino balioetsiko da)

B AUKERA

“Neu naiz, askozaz, orain arte izan den gizakirik beldurgarriena; baina horrek ez du kentzen ongileena ere neu izatea. Badazagut *suntsitzearen* atsegina nire suntsitzeko *indarrari* dagokion maila batean, -bietan neure natura *dionisiakoari* obeditzen diot, zeinak ez dakien ez egitea bai esatetik bereizten. Neu naiz lehen *immoralista*: horrexegatik naiz *suntsitzailea par excellence*”.

F. Nietzsche: *Ecce homo*

GALDERAK

1. TESTUA ULERTZEA

- 1.1. Formula ezazu testu honetan ukitzen den gaia eta egizu gaian garatzen diren ideia nagusien laburbilduma.
- 1.2. Azal ezazu hitz edo esaldi azpimarratuen esangura.

(3 punturaino balioetsiko da)

2. TESTUINGURAKETA

Erlaziona ezazu testu honen edukia autorearen pentsamendurekin eta bere garaiarekin. Nahi baduzu, ondoko galderen inguruan egin dezakezu:

- 2.1. Zein da Nietzschek kritikatzeko duen moralitatea?. Zertan zetzan?
- 2.2. Zergatik da onuragarria dagoen moralitatearen suntsipena?.

(4 punturaino balioetsiko da)

3. IRUZKIN KRITIKOA

Presta ezazu idazketa labur bat testuaz zeure iritzien arrazoiak emanez. Idazketa, nahi baduzu, ondoko galdera batzuen edo guztien inguruan egin dezakezu:

- Nietzschek kritikatzeko duen moralitatea dagoen bakarra da? Ba al dago besterik?.
- Balio moralak unibertsalak dira ala adin, garai, edo gizarte bati egokituak besterik ez dira?

(3 punturaino balioetsiko da)